

Teknologia berrien tailerrak hasiera eman zien Jardunaldi Internazionalistei



Alicia Piskun, etorkin argentinarrarekin aritu gara solasean

Argentina uztera zerk bultzatu zuen Alicia eta nolatan etorri zen Lasarte-Oriara kontatu digu. Gainera, zenbat etorkin etorri diren Lasarte-Oriara eta nongoak diren ere azalduko dizuegu. **4/5**

Facebook edo blogak, sare sozial zentralizatuak edo deszentralizatuak, nazioartekoak edo lokalak, Linux eta software askea edo musika eta filmak nola jaitzi izan ziren larunbata goizean XII. Jardunaldi Internazionalistei hasiera eman zion tailerrean aztertu ziren gaiak.

Manuel Lekuona kultur etxean egin zen tailerrean, teknologia berrietan, kapitalismoaren sareak ekiditeko moduak erakutsi zituzten

Kapitalismoari aurre egin

Izan ere, gaur egungo gizartean gailentzen den sistema kapitalistari aurre egiteko aukera ugari dago.

Horregatik, Lasarte-Oriako Askapena eta Komite Internazionalistak taldeek, kapitalismoaren aurrean herritarrek egin dezaketena erakutsi nahi dute jardunaldien edizio honetan.



Facebook antzeko sare zentralizatuak edo software askeari buruz hitz egin zen larunbateko tailerrean.

Gaur, kultur etxeko hitzaldi aretoan hitzaldi sortari hasiera emateko elikadura eta kontsumoaren arloan dauden alternatibei buruz mintzoko dira; bihar, pentsamendu

korrontea den deshazkunderari buruzko hitzaldia eskainiko da eta asteazkenean, banka etikoa izango da aztergai.

Hitzaldi hauetan guztietan teoriaren alde praktikoa azal-

tzen duen esperientzia aurkeztuko dituzte hizlariak, hala nola, elikagaien kasuan Usurbilgo nekazal kooperatiba edo FIARE kreditu kooperatiba, banka etikoarenean. •

Oreindik-en estilo nahasketa Sustrai tabernan

Rock, funkya, pop... estilo desberdinetako musika entzun ahal izan zen larunbata arratsaldean, Sustrai tabernan. Bertara hurbildu ziren herritarrek Lasarte-Oriako Oreindik taldearen abestiez gozatzeko aukera izan zuten. Hizki pertsonalak eta gertukoak eta une, zein ideia desberdinen isla direnak. Doinu nahasketa eta estilo anitza. Nahiz eta, 2009an sortu zen talde honek, erpoertorio motza izan amaieran, entzuleen eskaerari erantzunez bi abesti eskaini zituzten denon gozamenerako. •



KIROLA /2

Finalera ibilbidea hasi du herriko areto futbol txapelketak

UDALA /2

Udalak doaneko Wifi sarea zabaldu du

KIROLA /6

Lasarte-Oriako II. BIT Trabiesa ospatuko da datorren igandean



MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA



Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Finalerako ibilbidea hasi dute herriko areto futbol txapelketako taldeek

Ostadar K. Fak antolatzen duen areto-futboleko txapelketako bigarren faseko final laurdenak, ligaxka eta konsolazioko lehenengo partidak jokatu dituzte asteburu honetan Kirol gunean eta kiroldegian. Final handiaren eguna gertuago dago eta guztiek leku bat nahi dute.

Play-off borrokatua

ISU Leihoak, Izkiña, Buenetxea, Epel, Izarra, Ainhoa, Lekuona Mena eta Oria kristaldegia izan dira azkenean play-offetako final laurdenetarako sailkatu diren taldeak.

Lehiaketa honetan, final handira arte, joan-etorriko kanporaketak jokatu dituzte taldeek.

Epel-Izarra, Izkiña-Lekuona Mena, Buenetxea-Ainhoa eta ISU Leihoak Oria kristaldegia izan dira asteburu honetan kiroldegian jokatu



Partidatan gogor aritu ziren taldeetako jokalariek errenta lortzeko nahian. Hala ere, itzuliko jardunaldiak erabakiko du zein taldek egiten duten aurrera.



diren final laurdenetako joaneko partidak.

Gogor lehiatu dira taldeak errenta lortu eta hurrengo partida lasai jokatzeko. Hala ere, kasu batzutan, bueltako partida erabakiorra izango da final

erdietarako txartela zeinek lortzen duten jakiteko.

Ligaxka

Ligaxkari dagokionez, lehiaketa honetan sartu diren taldeek, Biyona, Morrison,

Mingallon, Ilargi, IOB H.K., Naiban eta Tragokkak play-offaren antzeko sistemak jokatu dute. Horregatik, talde hauek ere gogor saiatu dira asteburu honetako kanporaketa bere alde jartzen.

Konsolazioa

Azkenik, konsolazio lehiaketan lau taldeek, Goiz Argik, Okelak, Siglo XX-k eta Obeliek, haien artean jokatu erabakiko dute irabazlea zein den. •

Idoia Olasagasti atleta Gipuzkoako txapelketan bigarren izan zen

Landaberi ikastolako hainbat atletak alebin mailako proba konbinatuak Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuen martxoaren 28an Hernanin eta horietatik, Idoia Olasagasti izan zen urrezko domina lortzeko aukera gehien izan zituen.

Alebin mailako proba konbinatuak txapelketan hiru probetan parte hartu behar izan zuten atleta gazteek: 60 metroko lasterketa, pisu jaurtiketa eta luzera jauzian.

Urrea eskuetatik ihesi

Olasagasti lasarteoriatarrek lan ona egin zuen txapelketa osoan.

60 metroetan lehenengo postua eskuratu zuen 8,7 segunduko markarekin eta

pisu jaurtiketan ere hirugarren postua lortu zuen. Tamalez luzera jauzian, galdu zuen Gipuzkoako txapelketan izateko aukera, 3,6 metroko markarekin zazpigarren geratu zen.

Gauzak horrela, azken sailkapenean, Jakintza ikastolako Ane Iribarri gailendu zen hamar puntuko errentarekin.

Beste atletak

Bestetik, aipatzekoa da Landaberriko beste atleta baten lana, Oihana Igariz. Igarizek bosgarren postua eskuratu zuen probatan izandako erregulartasunagatik.

Hauetaz gain, Landaberriko Alaitz Esnaolak 15. postua eskuratu zuen, Garazi Santestebanek 24. postua eta Amaia Maizek 28. postua. •

LOKEko judoek emaitza onak lortu dituzte

LOKEko judo sailak bi txapelketa garrantzitsu izan zituen martxoaren 27, batetik Gijonen junior eta eskola mailako Espainiako borroka txapelketa izan zuten eta bestetik Fuenjirolan, kadete mailako Nazioarteko txapelketa.

Espainiako txapelketa

Gijonen burutu zuen Espainiako borroka txapelketan bi domina eskuratu zituzten LOKEko judoek junior mailan, Leire Zubizarretak zilarrezkoa eta Amaia Curielek brontzezkoa.

Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, "biak oso ondo aritu ziren borrokan."

Eskola mailan, berriz, Abayuba Gutierrezek, Fermin Baldak, Oscar Garridok, Ander Curielek eta Asier Zubizarretak bosgarren postua eskuratu

zuten eta Josu Olmosek zazpigarrena.

Fuengirolako txapelketa

Bestalde, Fuengirolako kadete mailako nazioarteko txapelketan, Mario Garrido eta Esteban Martinezek parte hartu zuten.

Garridok, bosgarren postua lortu zuen. "Lan ona egin zuen, baina brontzea galdu eta azkenean bosgarren geratu zen," azaldu du Aristegik.

Esteban Martinezek ordea, ez zuen egun ona izan. Lehenengo borroka galdu eta lehiaketatik kanpo geratu zen. •



Leire Zubizarretak eta Amaia Curielek dominak lortu zituzten borrokan.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Jaizkibel plazako eraberritzea aurkeztu du Lasarte-Oriako Udalak

■ Proiektua gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzako *Hiriber* programaren onespeneren zain dago

Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkateak, Jaizkibel plazako eraberritze proiektua aurkeztu zuen asteartean komunikabideei eskainitako prentsaurrekoan.

Alkate gazteak azaldu zuenez, proiektu hau Eusko Jaurlaritzak duen *Hiriber* programaren laguntzaz egin nahi du Udalak. Izan ere, 637.300 eurotako gastua izango du, BEZ-a eta "azken orduko aldaketak izan gabe."

Plazaren eraberritzea

"Bertan bizi diren auzotarren kezak eta iradokizunei erantzunez egin da eraberritze proiektua," azaldu zuen Zaballos alkateak eta "izan ere, eurria egiten duenean plaza urez betetzen da eta ezin da bertatik igaro," atxiki zuen.

Gauzak honela, eraberritze proiektu honetan, plazako lurzorua aldatuko da, "uraren arazoa ekiditeko."

Bestalde, egun parkean falta diren haurrentzako parkea, eremu berdeak eta eserleku eremua egingo dira.

Zuhaitzak egun dauden



Jesus Zaballos alkateak Udalak *Hiriber* programara aurkeztu duen Jaizkibel plazako eraberritze proiektua erakusten.

kokalekuan egongo, baina alkateak onartu duenez, "ingurumeneko teknikariaren gomendioz, aldatu beharko dira. Izan ere, batzuk gaixo daude."

Honetaz gain, "tabernek udan jartzen dituzten terrazak errespetatuz egin da proiektua ere," azaldu zuen alkateak.

Eremu modernoagoa

"Era honetara, lan guztiak bukatzerakoan, Loidi Barrerako etxebizitzak, Adarra eta Jaizkibel plazako eraberritzea eta Gaztelekua, auzoak estilo modernoagoa izango du," adierazi du Zaballosek.

Hala ere, oraindik puntu bat du Udalak konpontzeko,

"Jaizkibel eta Uzturre plazako lokal batzuen berkokatze falta da. Gehienek Adarra plazako eraikin berrian dute lekua dagoeneko. Hori lotzean, lokal horiek eraitsiko ditugu," azaldu zuen alkateak.

Hiriber programa

Hirigintzaren aldetik degrada-

tuak, urbanizazio, hornidura eta azpiegituren eza edo urritasuna duten hiri-eremuetan lehenetsuneko esku hartzeak egiteko diru-laguntzen programa da Eusko Jaurlaritzaren *Hiriber* ekimena.

Lasarte-Oriako alkate berriak azaldu zuenez, "honetara, milioi bat baino gutxiagoko proiektuak aurkeztu behar dira eta Udalen aurrekontutik kanpoko daude."

Aurkeztutako proiektuen arabera banatuko da dirulaguntza eta Eusko Jaurlaritzak gehienez %75a finantzatuko du, "beraz, Udalaren esku geratzen da

Behin dirulaguntza eskainita, hilabeteko epean hasi beharko dute lizitazio-prozesua Udalek. Era berean, eraberritze lanek amaituta egon beharko dute 2010eko abenduaren 31 baino lehen.

Proiektuak aurkezteko epea ostiralean bukatu zen eta Udala erantzunaren zain dago. Hala ere, "dirulaguntza hori lortuko dugu," onartu zuen ziurtasun handiz. •

Lasarte-Oriako Udalak doaneko WIFI sarea handitu du

Duela hiru urte, Manuel Lekuona Kultur etxean jarri zuen WiFi Lasarte-Oriako Udalak. Orain, eremu zabaldu duela jakin arazi du Udalak eta beste udal eraikinetan Interneten ibili daitezkeela herritarrek doan.

"Sarea herrira zabaldu nahi genuen eta Foru Aldundiak egin zuen ikerketa batean WiFi askea ez jartzeko gomendioa egiten zuten," azaldu zuen Lasarte-Oriako alkateak.

Honela, Udal eraikinetan jartzeko erabaki hartu zen eta egun bederatzi puntu WiFi daude gure herrian: hiru Kultur etxean, bat Villa Mirentxun, beste bat kiroldegian, bi Udaletxean, beste bat Zerbitzu eta Lan pabilioa eta azkenik Udal euskaltegia. "Beste bi jartzea aurreikusia dago, bata Villa Mirentxun Somotoko parkeko eremurako eta bestea Kirolo Gunean egongo dena," aurreratu zuen.

Gauzak horrela, WIFI seinalea udal erakin barruan eta

hauen inguruan hartu daiteke, "eremu komunetan eta eraikin bakoitzeko ordutegiaren arabera."

Gainera, Udal instalazioak handitzen doazen heinean, WIFI guneak ere ugartuko direla aipatu zuen. "Esate baterako, Gaztelekuan ere WIFI puntu bat jarriko litzateke," azaldu zuen alkateak.

Alta eman

WiFi sistema honen bidez herritarrek 400 megako zerbitzua izango dute Interneten nabigatzeko.

Hau erabiltzeko, alta eman behar da zerbitzuan. Horretarako, hiru era daude, batetik liburutegiko bazkideek bertan egin dezakete, bestetik bakoitzak etxetik egin dezake do, azkenik, Udalak ezarritako kioskoetan egitea da.

Azken bi kasuetan, ONA txartela, IZENPE txartela edo NAN elektronikoa erabili behar da. "Izan ere, legeak, erabiltzaileak identifikatuak

egotea eskatzen du," azaldu zuen alkateak.

Kioskoak

Aipatutako, kioskoak Kultur etxean eta kiroldegian dauden makinak dira.

"Hauetan, 10 minututan gonbidatu bezala ibili zaitezke. Lasarte-Oriako Udalak, zein beste erakunde batzuk Online dituzten zerbitzuetan ibili daiteke hauetan. Baita gauzak inprimatu ere," azaldu zuen Zaballosek.

Era berean, Udaletxean beste kiosko bat jartzea aurreratu dute.

Web gunea

Era berean, Lasarte-Oriako Udalaren web gunean zerbitzu berriak ezarri direla jakin arazi zuen Jesus Zaballos alkateak.

"Web orrialdean dagoen zerbitzu telematikoan sailean sartu eta bertan hainbat gauza egin ditzakezu: errolda kontsultatu; zergak eta tasak, ordainagiriak edo isunak



Alkatea Kultur etxean dagoen kioskoan Udaleko web orrialdean sartzen.

ordaindu, erregistroa, WiFi lan alta ematea, liburutegi birtuala eta Online ordainketak," azaldu zuen. Baina, beti ere, lehen aipatutako txartelirik baduzu.

"Herritarrei erraztasunak emateko era da hau. Udalera etorri beharrean, etxetik bertatik egin dezakete guztia. Eta Udal ordutegitik kanpo ere, noski," adierazi zuen. •

‘Lan faltak eta bortizkeria egoerak gure herrialdea uztera behartu ninduen’



8 urte dituen Alicia Lasarte-Oria eta bere aspin hain harrera ona egin duen herri horietan gertatzen da.

Magrebiki, latinerik, senegaldarrak... gero eta abiztasun kultural handiago dago gure kaleetan. Euren herrialdean bizi duten lan egoera eta pobrezki nahi ez duten erabakia hartzea behartzen ditu askotan, euren lurraldea uztera. Askotan kontinentez aldatu eta, ezagutzen ez duten herrialde batean, bizitza ezereztik hasiera behar-tuta daude. Gainera, eurakiko hementzen lanerak, askotan, gauzak zail- du egiten dizkiete. Askok iste baliute lanera etorri behar-rean karriztatu bizitzera datozela. Beldur nori teleskaitu ematen den inddi distorsionatuaren eraginez izan daiteke, baina errealtitatea beste bat da. Hemen bizi diren immigrante gehie- nak lanean daude, euren bizitza-pena dago jokoan.

Egoera ekonomikoak solik bu- litatu zuzen jatorria uztera?

Egia da horak eragin zuela, ni bainuzen baina neulan bak- rra. Senera eta esmentzat espasatza gusi zegoen. Gab- rera, kalean bizi zen bortitze- na ikargarria zen, jasangarria. Zerta ditelako norbait hilzea bi- zapaita lapurtzetatik. ‘El con- ciallo’ k eragin handia izan zuen giza-aren. Curri ez, bez- pobrek ginekako jana. Baina, bai, eragin zigen lana galtze- koan edota bihurtzekoan; ez zegoen aukerarik, eta langabe- zia ditugunak ezakuten duen.

Ela nola ez, bertan gudu- prezioak ikusita. Izugarrik izan, hementxo prezioak konparatu: nire herria gure 5 eurotan erosi berri genuen, eta hanga 30 eurotan, jasan ez- neko prezioak dira. ‘El delin- kuentzia jasetako psikologiko oso gojorona da.

Argentina erizaina zinen, ikasitortik burutu al zenuen?

Argentina erizain moduan edonor hasi daitek. Ezer jakin gabere ere lotu dezakegu posu frankoa. Lanuzale moduan hasi nintzen. Baina demoratu- kin, Kordobako gobernuak urte- atako lanean gogorapenari uni- bertsiakoa titulua eskuratzeko aukera eskaini zigun.

Au- keratu zidan zailazain titu- lua eskuratu. Lanarik prakti- ka burutzen nintuen, eta irakurazale unibertsitaria, eta guzt honak kosu handia akari- zigun, baina titulua lotu nuen. Baina guztetako plazer bidai- bat eginia luxu zen.

Han erizain eta hemen gabi- tzaila, aldaketa handia al zen?

Hastieran bai, baina bete- ken zertara neortzen, kulturekin hartu nuen. Hemengo maila oso altu da, errespagarria eta mistrekoa. Oposaketen metodoa egokia da, hango erakunde aldiak, hango erakunde erantzuleak. Hemen aldi- a AEB-n zegoen bere senargia- rin. Orian hemen bizi da, fami- lia guztia gaudu elkarrekin.

Munduko lurralde ezberdinetako biztanleak ditugu gure artean

XIX. mendearen erdialdean hasita euskuizatuak babes edo zorion bida beste lurralde ugari eta antzeztera joan zituen. Askok badakite zein gogorra den hazien ikusi zaituen lur hori uztea, baina askotan ez ditte beste iturbidirik. Orian, gure herria etorkinak jasotzen dituen lur bihurtu da. Euren herrialdeetan bizi dituen egoera jasangaitzak gurea elkarri ditut bertsoz horetik.

TONTXARRI

immigrazioaren gara ez da Euskal Herriko atzerria- gertakari herria, baina azken urteetan etorkinen orain, baina herria ez dira jarraio moduan nabaritu daude. Honela, Euskal Herriko toki asko, emigrazio lurralde izateratik etorkin helmuga izatera pasa dira. Lasarte-Oriako udalerria ez da salbesterik izan eta etor- kinen jasotzailer bihurtu da. Lehen alpatu bazela, immi- grazioaren tenenosa asko han- ditzen urtean. Baina 19-44 urte orakoa hobeto uertu

Biztanleia gaztetzen

Lasarte-Oriako biztanleia gaztetzen urtean, %7,1 bizi da Lasarte-Oria, baina herria ez dira jarraio moduan nabaritu daude. Honela, Euskal Herriko toki asko, emigrazio lurralde izateratik etorkin helmuga izatera pasa dira. Lasarte-Oriako udalerria ez da salbesterik izan eta etor- kinen jasotzailer bihurtu da. Lehen alpatu bazela, immi- grazioaren tenenosa asko han- ditzen urtean. Baina 19-44 urte orakoa hobeto uertu

Honekin ondoriozatu dai- teke, orokorrean populazio atzerria garza eta Lasarte-Oriako populazio osoan %19,5 adin hartu honetan bidaera atzerko. Halaber, Lasarte-Oriako gertakari so- zialak, espainiar estatuko gati- nerako ekidiezak antzera gertatzen da.

Bilakaera maigira

Badiuri gure herriko popula- zio oso gutxi hazi dela atzerria garza eta Lasarte-Oriako populazio osoan %19,5 adin hartu honetan bidaera atzerko. Halaber, Lasarte-Oriako gertakari so- zialak, espainiar estatuko gati- nerako ekidiezak antzera gertatzen da.

Lasarte-Oria atzerria

Euren artean bizi diren atze- zegoen bitartean, 2009an

Lasarteko populazio osoa eta atzerriarra adin tartean arabera 2009				
Bertakoa		Atzerriarra		Guztiz
Kop.	%	Kop.	%	Kop.
0-5 urte	1.035	6,2	42	4,3
6-15 urte	1.263	7,5	78	7,9
16-17 urte	254	1,5	19	1,9
18-24 urte	981	5,8	166	16,8
25-44 urte	5.357	31,9	541	54,8
45-64 urte	4.635	27,6	134	13,6
65-74 urte	2.065	12,3	7	0,7
75 urte edo gehiago	1.205	7,2	0	0,0
GUZTIRA			100,0	987
			100,0	17.782

2009ko urtearen amaieran, %62,2a latineri- rritarian, %62a latineri- katik etorriak dira. Bigarren %57,4a emakumeak dira. Gainerako herrialde- tano etorkinaren etorkinen galdik etorkiak; ez ditugu gure artean iturbatutako etorkiak. Alemaniarak hain etorkiak dira, zentratuak etorkien artean. Hala ere, lehen alpatu duzun bezala, gure herria herrialde batzuetatik etorki- garriak dira.

Erdugeun nagusi

Atzeriaren prezentzia ez da hain gutxi, baina herria herrialde batzuetatik etorki- garriak dira. Gainerako herrialde- tano etorkinaren etorkinen galdik etorkiak; ez ditugu gure artean iturbatutako etorkiak. Alemaniarak hain etorkiak dira, zentratuak etorkien artean. Hala ere, lehen alpatu duzun bezala, gure herria herrialde batzuetatik etorki- garriak dira.

Nazionalitate ugari

Europako nazionalitate ugariak dira, baina herria herrialde batzuetatik etorki- garriak dira. Gainerako herrialde- tano etorkinaren etorkinen galdik etorkiak; ez ditugu gure artean iturbatutako etorkiak. Alemaniarak hain etorkiak dira, zentratuak etorkien artean. Hala ere, lehen alpatu duzun bezala, gure herria herrialde batzuetatik etorki- garriak dira.

Bizitza

Bizitza herria herrialde batzuetatik etorki- garriak dira. Gainerako herrialde- tano etorkinaren etorkinen galdik etorkiak; ez ditugu gure artean iturbatutako etorkiak. Alemaniarak hain etorkiak dira, zentratuak etorkien artean. Hala ere, lehen alpatu duzun bezala, gure herria herrialde batzuetatik etorki- garriak dira.

ADURIZ DE LASARTE S.A

• ZATIKA ETA AIRETOKI
• URDAINGINTZA LANTEGIA
• BILTEGI HOZKAILUDUNA

LOIDI BARREN KALEA 3 • LASARTE-ORIA • TEL.: 943 361 278 • 943 361 655 • 943 362 451

Lasarte-Oriako II. BTT travesia egingo da igandean Buruntza eta Andatza mendietan

Aurten 7 eta 12 urte arteko gazteek 2,5 kilometroko travesia egiteko aukera izango dute

Lehenengo edizioan, 2008. urtean, 186 parte-hartzaile izan ziren Lasarte-Oriako I. BTT travesia antolatuta zen. Orduko arrakasta ikusirik, aurten bigarren edizioa antolatu dute herriko Saiatuz Txirrindulari Kirol taldeak, Ostadar eta Bazpi elkarteek laguntzaz.

Proba apirilaren 18an, hurrengo igandean egingo da eta Buruntza eta Andatzako mendietan barrena egingo dute lasterka txirrindulariek.

"Eguraldi ona eginez gero, 200 txirrindulari baino gehiago batzea espero dugu," aipatu dute antolatzaileek.

Ibilbidea

Irteera goizeko 9:00etan izango da Hipodromoko zubiaren ondoan eta bi ibilbide egiteko aukera dago, bata motza 21km dituen eta bestea, 40 kilometrotakoa.

Ibilbide motza aukeratzeko dutenek, Buruntzari buelta emango diote eta Andatzako pistatik igoko dira antenaraino eta hortik Lasartera egingo dute buelta.

Bestalde, 40 kilometroko luzerako bideak, Andatzara bitan igo beharko dute txirrindulariek, bata Zubietatik eta bestea Aiatic.

Antolatzaileek jakinarazi digutenez, proban parte hartze-ko prestaketa egon behar da. Izan ere, "lokataz egonez gero, gogorra izango da."

Indarrak berreskuratu

Ibilbidean zehar hiru gune antolatu dituzte jan eta edatekoekin, bata Azkorten, bestea Andatzara bidean dagoen antena eta bestea Aiako Andatza auzoan.

Proba bukaeran ere, nekea eta botatako izerdiak ahazteko jakiak eta edariak egongo dira partehartzaileen eskura.

Honetaz gain, partaide guztiek opariak izango dituzte, probako kamiseta eta sagardo botila bat, eta proba bukatuta-koan opari desberdinen zozketa egingo da.

Izena-ematea

Izen-ematea Internetez bidez egin daiteke, 16 urte baino gehiago izan behar dira eta 20 euro ordainduko dira.

Egunean izena eman ahalko da, goizeko 8:00etatik 8:30era, baldin eta Interneteko inskripzioarekin ez bada bete. Izan ere, parte-hartzea 300 txirrindularira mugatu da.

Informazio gehiagorako, inskripzioaren baldintzak, kuotak eta lasterkariaren programak



Buruntza eta Andatza mendietan barrena ibiliko dira BTT travesiako txirrindulariak igandean. Arg: Saiatuz.com

edo izena-emateko formularioa www.saiatuz.com web gunean aurkituko duzue.

Txiki travesia

Aurten gainera, etxeko gazteek, 7 eta 12 urte artekoek aukera izango dute mendi bizikletan

ibiltzeko. "Bazpi txirrindularitza eskolakoek proposatu zuten eta ideia ona iruditu zitzaigun," aipatu dute.

Hauek 2,5 kilometroko ibilbidea egingo dute Zubietako frontoiraino eta buelta.

"Haurren arabera, multzoak

egin eta Bazpi txirrindularitza eskolako kide batekin joango dira," azaldu dute antolatzaileek.

Igande goizean, 8:30tik 9:00etara izango dute txikiak izena emateko eta 5 euro ordaindu beharko dituzte. •

LANAK

Kale mozketa Goiegiko Urbanizazioan

Donostiako Bigarren Ingurubideko lanak direla eta, mozketa bat izango da Goiegiko Urbanizazioko irteeran apirilaren 22ra arte.

Ondorioz, 1 eta 31 zenbaki artean dauden etxebizitzetako auzotarrek ohiko sarrerako bidetik urbanizaziara sartu eta irten beharko dute.

Alkatetzak barkamena eskatu nahi du itxiera honen ondorioz sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

UDALA

Obrak eta Hirigintza saila Ganbo kalean

Udalak gogorarazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrera tokialdatu direla, behin-behinean, harik eta "Udaletxea eraberritzeko eta handitzeko" obrak amaitzen diren arte. •

UDALTZAINAK

Galldutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, argazki kama- ra, urrezko eskumuturrekoa, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrrezko zintzilarioa, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrrezko belarritakoak, betaurreko graduatuak eta betaurreko graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara. •

Markel Olanok Diputatu nagusia herritarren galderak erantzungo ditu ostegunean Kultur etxean

Foru Aldundia Zure Herrian izeneko ekimena dela eta, Markel Olanok Gipuzkoako Diputatu Nagusia herriz herri eta eskualdez eskualde dabil Gipuzkoako errealtatea ezagutu eta Foru Aldundiaren kudeatzea azaltzeko.

Azkoitia, Aia, Beasain, Irun, Zestoa eta Oñatin dagoeneko elkarrizketatu dira Diputatu Nagusiarekin.

Ostegunean, apirilaren 15ean, Lasarte-Oriaren txanda izango da, Manuel Lekuona Kultur etxeko areto nagusian, 19:00etatik aurrera.

Gipuzkoako Diputatu Nagusiarekin batera, Eneko Goia, Azpiegitura Foru Diputatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramailea ere izango da ekitaldian.

Herritarren galderak

Bertan, Lasarte-Oriako herritar eta hainbat elkarte eta erakun-



Markel Olanok eta Eneko Goiak herritarren galderari erantzungo diete.

detako ordezkariekin elkartuko dira etorkizunera begirako arazoak eta erronkak partekatuzko.

Era honetara, Diputatu Nagusiak zuzenean entzungo ditu lasarteoriatarren ekarpenak eta kritikak eta, era berean, haien galderak erantzungo ditu.

Ekimenean partaide izateko

Foru Aldundia Zure Herrian ekimen parte-hartzailea irekia da.

Hala ere, ekitaldian parte hartu nahi duenak 943112290 telefono zenbakira deituz edo kabinetea@gipuzkoa.net helbidera mezu bat bidaliz eman dezake izena. •

Egunero

Erakusketa

SU LAZTANAK, Garikoitz Lasaren egurrean egindako pirograbatuak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Ostirala, 16

Antzerkia

GEZURREZKO PRINTZEA antzezlan, Txirene antzerki taldearen eskutik. Jalgi kafe-antzokian, iluntzeko 21:30ean. EUSKARAZ.



Igandea, 18

Zinea

TIANA Y EL SAPO haurrentzako filma ikusgai. Sarrera 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.



Rock emanaldia kulturetxeko kafetegian

YDILIA rock taldeak kontzertua eskainiko du, Xpression eta Lasarte-Oriako Udalak Gazte ekimenak bultzatzeko duela hilabete batzuk eginiko akordioaren barruan.

APIRILAREN 16AN, OSTIRALA
KULTURETXEKO KAFETEGIAN
20:00ETAN, DOAN

Astelehena, 19

Kontzertua

EUSKAL IPUIN BAT izeneko kontzertu pedagogikoa. Kulturetxean, 18:00etan.

Asteartea, 20

Hitzaldia

ERAKUTSI BEHAR AL ZAIE SEME-ALABEI KONPARTITZEN? hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok

Udalaren Sanitateko Departamentuak atolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ.

Osteguna, 22

Hitzaldia

KUDEATUZ egitasmoko 3. bilera. Osasun Zentroko 3. solairuan, balio anitzeko gelan, 18:30ean.

Zinea

LABURBIRA, Film laburren VII. Zirkuitua Topagunearen eskutik. Hona filmak eskainiko dira: Ahate pasa, Zorion hutsa, Nora zoaz, Clark & Boris, Odisea etxealdean, Kameratoia, Esaioak eta Amona putz. Jalgi kafe-antzokian, 21:00etan. EUSKARAZ.

Ostirala, 23

Kontzertua

Zumaiaiko SAN PEDRO ABESBATZAREN emanaldia Danok Kideek antolatzen duen V. Musika Topaketan barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Larunbata, 24

Antzerkia

TXIRULARI MAJKOHA haurrentzako antzezlan Teatro Paraiso taldearen eskutik. Sarrera 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. EUSKARAZ



Igandea, 25

Zinea

LILY, LA PRINCESA HADA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

XII. Jardunaldi
Internazionalistak

**Kapitalismoaren
alternatibak aztergai**

Astelehena, 12

Hitzaldia

ELIKADURA-SUBIRANOTASUNAZ TOKIKO ESPERIENZIAK aurkezteko hitzaldi praktikoa Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Asteartea, 13

Hitzaldia

DESHAZKUNDEARI buruzko bideo emanaldia eta hitzaldia Manuel Lekuona kulturetxean 19:00etan.

Asteazkena, 14

Hitzaldia

BANKA ETIKOARI buruzko bideo emanaldia eta hitzaldia Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Osteguna, 15

Zinea

FAST FOOD NATION filma. Sarrera 4,15 euro. Okendo Zinema Taldearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

Ostirala, 16

Kontzertua

OGEI MINUTU taldearen kontzertua Obelisk tabernan, 21:00etan.

Larunbata, 17

Bazkaria

AFARIA MEXIKAR-BEGETARIANO. Menua 12 euro. Xirimiri Elkarte, 21:00etan.

Oharrak

Udako Txokoetan begirale

Haurrak gustukoak dituzten gaztetxoek Udako Txokoetan begirale izateko aukera eskaintzen die Ttakun Kultur elkarteak. Apirila eta maiatza bitartean zabalik izango da begirale moduan aritzeko izena emateko epea. Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukun bat edukitzea da. Begiraleak aukeratzeko proban, begirale titulua, esperientzia eta hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak edukitzea hartuko dira kontutan eta puntuazio bidez aukeratuko dira.

Izen-ematea Ttakunen egin behar da (Geltoki kalea

4) eta informazio gehiagorako deitu 943 371 448 telefonora.

Iruzurren abisua

Lasarte-Oriako Udaleko alkateak jakin duenez, engai-nuaren bidez egindako lapurreta bat izan da udalerrian. Diputazioko teknikariak direla esanez, bi pertsona sartu dira Lasarte-Oriako etxebizitzetara batean jabeen baime-narekin, eta momentu hori aprobetxatu dute lapurtzeko. Hori dela eta, antzeko egoerak aurreikusitako eta saihesteko, alkatetzak honek arreta eskatzen die herritarrei.

Halaber, Lasarte-Orian Haitirekin maratoi solidario batean laguntzeko aitzakiarekin, diru

kopuru bat eskatzen ari zaie komertzio eta tabernei. Udaleko Erregistroan kirol proba hau burutzeko instantzia bat aurkeztu badute ere, datu faltsuekin egin da eskaera, eta beraz, ez dago horrelako maratoi solidarioirik aurreikusita.

60ko kinto afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kintoen afaria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5a da. Bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 2101 0048 20 0012568275 kontuan sartu behar da. Informazio gehiagorako interesatuek 943 37 09 80 telefonora deitu (Maria Luisa).

Albokaren Batzar orokorra

Alboka abesbatzak bazkideei jakinarazi nahi die batzar orokorra gaur, hilaren 12an, ospatuko dela Arantzazuko Amaren elizaren azpiko lokalean. Lehenengo deialdia 19:30ean izango da eta bigarrena 20:00etan.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

Dagokionari

Hauxe duzu zure intzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezu txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekariz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Aitor Karrera Jalgiko zerbitzaria

“26 urtez arbitro izan naiz eskubaloian”

2005etik 2008ra bitartean Asobal ligako goi mailako partiduak arbitratu zituen

41 urte bete berri ditu martxoan Aitor Karrera eta horietatik 26 eman ditu eskubaloian goi mailako arbitro bezala. Errenteriarra da, baina duela zortzi urte etorri zen Usurbilera bizitzera. Hain justu, herri honetako alkate da eskubaloian azken urteotan izan den jokalaririk onenetarikoa, Asobal ligako hainbat taldetan ibilitako Xabier Mikel Rekondo. Orain kalean ikusten dute elkar. Lehen kantxatan. Tarteka txartela atera eta kanporatu ere egin zuen. Aitor Karrera Lasarteko Jalgi tabernan ari da lanean eta tarte bat hartu du gure galderi erantzuteko.



Aitor Karrera 26 urtetan izan da arbitro eta orain Asobaleko delegatua izaten da Eibarren, Iruñean edota Logroñon.

JON ALTUNA

Ator Karrera 26 urtean hara eta hona ibili da ia astero eskubaloio partiduak zuzentzen. 14 urtekin hasi eta iaz utzi zuen. 1983an hasi zenean Gipuzkoan bost arbitro ziren ohorezko mailan. “Beste inon ez zen hainbeste izango. Orain ez dago bat ere. Dena galdu da”.

Nolatan hasi zinen epaile?

Ikastolan, eskubaloian jolasen ari ginela, jolas garaian. Behin partida bat egin behar genuen, arbitro falta zen eta Jose Inazio Altube kiroletako irakasleak txilibitua eman eta “hasi zaitez” esan zidan. Gero gustua hartu nion.

Beti eskubaloian aritu zara, jokalaria ere bai?

Urte pare batean jokatu nuen infantil mailan, 12-14urte bitartean. Eta jada 14 urterekin hasi nintzen arbitratzen. Altube irakasleak eta Errenterriako nazioarte mailako Andres González Berridi arbitroak bultzatu ninduten, Gipuzkoa mailan arbitro gutxi zeudela eta. Berridirekin bizpahiru aste ibili eta bigarren hilabetean jada bakarrik ari nintzen.

Zer nolako esperientzia izan da zuretzat?

Izugarria.

Azken hiru urtetan, Asobal ligan aritu zinen gainera?

Bai denboraldi batean 30 partidu inguru izatea zen normalena. Asobal ligako 7-8 taldek European jokatzeko zuten zuzeneko partiduak astearte edo asteazkenean jokatzeko zuten, beraz askotan tokatzeko zuten asteazkenean zehar...

Gustura joaten al zinen?

Bai, nire emazteak esaten zuen: “Goizeko 5etan jaiki behar duzu hegazkina hartze-

ko? nik bidaliko banizu...” hobya da, arrantzara edo ehizara joateko jaikitzea bezala.

Nazioarteko partidari arbitratu al duzu inoiz?

Lagunartekoak bai, esaterako, Euskadi-Brasil eta Euskadi-Argentina mutiletan eta Euskadi-Holanda nesketan.

Eta partidu gogoangarriak oroitzen al duzu?

Bitxikeria moduan kontatuko dut Asobal ligako nire lehen-dabiziko partiduak, 1993an, bakarrik arbitratu nuela: At Madrid-Valladolid partiduan arbitro kataluniar batekin nintzen eta 20. minutuan orkatila bihurritu zuen. Jokalari guztiek ulertu zuten egoera, oso ondo portatu ziren eta ez zen arazo handirik izan.

Ez al da lan erraza izango denak pozik edukitzen?

Oso zaila.

Nola moldatzen zineten lasai egoteko?

Atsedean hartzen genuen partiduaren aurretik, goizean eta arratsaldean. Partidua eta gero, bai, jada, ondo afaldu eta kopatxoren bat hartzen genuen.

Presioa horrenbestekoa izaten al da?

Toki batzuetan beste batzuetan baino gehiago, baina bai. Adibidez, Bartzelonan, Palau-n arbitratzea, zortzi mila pertsonen aurrean eta futbol partiduaren aurretik, ez da txantxa. Nabaritzen da presioa.

Jende asko kanporatzen al zenuen? Nolako epailea zinen?

Hori momentuaren arabera da. Ezagutzen ez zaituztenean askoz jokalaria gehiago kalera-tzen dituzu; gero beraiek ere badakite zu nolakoa zaren eta kontrolatzen dira.

Ikusleen haserrealdiak direla eta, arazorik izan al duzu?

Haserreak izaten dira. Kontuan izan bi talde direla, asko jokatzeko ari direla, presio handia daukatela.

Denak gustura geratzea oso zaila da, eta gainera, partiduaren aurretik giroa berotzen du sarri prentsak.

Poliziak babestua askotan atera al zaituzte polikiroldegi-aren batetik?

Askotan ez, baina dozena erdi aldiz bai.

Noiz eta zergatik utzi zenion Asobal ligaxkako partiduak arbitratzeari?

Iaz utzi nuen, gehienbat lau urteko haurra daukadalako. Konturatzen nintzen haurrak ia ez ninduela ikusten. Asteazkenean lanean eta asteburutan bidaian.

Nire haurraren urte politenak galtzen ari nintzen eta ez nuen hori nahi. Bestetik, 26 urte neramatzan, eta 40 urterekin, nik uste zuteko garaia iritsia zitzaidala, momentu egokia zela. Ez nuen kantxetan arrastaka ibili nahi.

Dena den eskubaloiarekin lotuta segitzen duzu...

Bai, Asobalen delegatu bezala jarraitzen dut, hemen inguruko partidotan mahaian egoten naiz: Eibarren, Iruñean eta Logroñon. Eguneko bidaiak dira, ez lehen bezala, ostiralean abiatu eta igandean bueltatu.

Jarraitzen al duzu gaur egun eskubaloia?

Bai, noski.

Eta beste kirolik?

Futbola ere gustatzen zait. Errealeko bazkidea naiz arbitratu urtetik. Ahal dudanean joaten naiz Anoetara.

Egun asko kritikatzeko dira epaileak. Zer iritzi duzu honetaz?

Arbitroari gaur duela 15 urte baino askoz gehiago eskatzen zaio. Futboleko funtzionatzen duen izoztegia eskubaloian ere badago, hau da, arbitro batek akats handiren bat edota partidu oso txar bat egiten badu, hiruzpalau aste egoten da arbitratu gabe, zigortuta, nahiz eta hori publiko ez egin.

Zein iritzi duzu baliabide teknologikoak erabiltzeari buruz? hau da, epaile batek errepikapena ikusteko aukera izateaz?

Nik uste denborarekin iritsiko dela. Adibidez, azken mundialdean proba bat egin dute baloia-ri txip bat jarrita, atean sartu den ala ez jakiteko, eta horrek ez du arrakasta handirik izan.

Arbitroak mikrofonoz elkarren artean hitz egiteko sistemarekin ere probatu dute eta ondo funtzionatu du, erraztasunak ematen dizkie, uneoro hartu-emanetan daudelako bere bikotetarekin. Hau, aurten, Errege Kopan erabiliko dutela uste dut.

Errepikapenak ikusita erabakitzeari buruz zein iritzi duzu?

Uste dut arbitroak bere esentzia galduko duela. Adibidez NBA-n egiten da, baina, ez dut uste eskubaloian jarriko denik, lehenago iritsiko da futbolera.

Kontrako iritzia dut, dena den, uste dut arbitroak gertatzen dena gertatuta ere hor egon behar duela. Asmatzen duenean oso ondo eta asmatu ez badu ez du akats hori nahita egin.

Beste ezer aipatu nahi al duzu?

Eskerrak emango nizkioke familiaria eta emazteari eduki duten pazientziarengatik. Dena den, horrela ezagutu ninduen emazteak. Askotan etorri da nirekin, gustatzen zaio. •

“ 1983an Gipuzkoan bost epaile ziren ohorezko mailan. Beste inon baino gehiago. Orain ez dago bat ere.